



**Lekunberriko Udala**  
Ayuntamiento de Lekunberri

# AURREKONTU PARTE HARTZAILEEN ARAUDIA

---

## **LEHENENGO TITULUA: Oinarrizko irizpideak.**

1. Irizpideen zehaztapena

## **BIGARREN TITULUA: Antolaketa.**

1. Lurraldearen egitura
2. Antolaketarako egitura

## **HIRUGARREN TITULUA: Proposamenak eta horien lehentasuna.**

1. Proposamenak.
2. Proposamenen lehentasuna.

## **LAUGARREN TITULUA: prozesuaren ebaluazioa eta araudiaren aldaketa.**

1. Araudia baloratzea eta aldaketak egitea

## **BOSTGARREN TITULUA: prozesu osoan betearazteko mugarri bakoitzaren data.**

## **ERANSKINAK**

# LEHENENGO TITULUA: Oinarrizko irizpideak

---

## 1. IRIZPIDEEN AZALPENA.

### **Prozesu irekia eta unibertsala.**

Aurrekontu parte hartzaileek izaera irekia eta unibertsala dute, eta Lekunberrin erroldatuta dagoen edozeinek parte hartu dezake. Parte hartzaile guztiek daukate erabakitze ahalmen berbera, adinak zehazten dituen salbuespenak aintzat hartuta. Bozka unibertsala izanen da ( pertsona bat, bozka bat).

### **Prozesu anitza.**

Lekunberrik bizi duen aniztasun eta ezberdintasunen adierazle izanen dira aurrekontu parte hartzaileak.

### **Prozesu argia.**

Aurrekontu parte hartzaileak herritarrei jakinaraziko zaizkie, horien garapen- prozesua, araudia eta edukiak azalduko dira. Ahalik eta modurik argienez emango dira azalpenak, herritar guztiek zertan diren uler dezaten, eta nahi izanez gero, parte hartu dezaten.

### **Adostutako prozesua.**

Herritarren gehiengoaren adostasuna lortuta kudeatuko dira aurrekontu parte hartzaileak.

### **Aurreikusitako prozesua, araudi propioa izanen duena.**

Aurrekontu parte hartzaileek araudi propioa izanen dute. Arau guztiak, dokumentu batean ( barne- araudia) jasoko dira, eta hura izanen da prozesu guztia nola egin zehaztuko duena: arauak, urratsak eta ekintzak.

### **Kontsultarako prozesua, loteslea izanen dena.**

Aurrekontu parte hartzaileek herritarren iritzia aintzat izanen dituzte, eta bukaeran hartuko diren erabakiak lotesleak izanen dira, udal aurrekontuetan txertatuko dira.

### **Elkarrekin kudeatutako prozesua.**

Aurrekontu parte hartzaileek herritarren eta toki- administrazioaren arteko ardurak eta kudeaketa eragingo dute.

### **Prozesu dinamikoa eta aldakorra.**

Aurrekontu parte hartzaileak Lekunberriko egoeraren baitan egokituz joanen dira: herritarren beharrak, zuzeneko partaideak, eta prozesuaren garapena.

### **Gizartearekiko justua eta solidarioa den prozesua.**

Aurrekontu parte hartzaileek gizartearen biziraupenerako eta gizartearekiko justuak diren irizpideak garatuko dituzte, hau guztia Lekunberriko herria eta herriko biztanleen onurako izanen da.

### **Prozesu eskuragarria.**

Lekunberriko herritar guztiek, baldintza beretan, izanen dituzte eskura aurrekontu parte hartzaileak.

### **Prozesu integratzailea eta barnerakoia.**

Helburua gizarteak parte hartzeko gunea eskaintzea da: Lekunberriko herritarrak aktiboak izan daitezen, haien herriko bizitza politiko, sozial eta kulturalean parte hartu dezaten.

### **Bidezko prozesua, berdintasunean oinarritutakoa.**

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatuko dute aurrekontu parte hartzaileek; prozesuaren urrats guztietan, eta urteroko udal- aurrekontuan txertatutako proposamenetan, behin udalbatzak onartuta dituenean.

#### **Formaziorako eta hezkuntzarako prozesua.**

Gizarteak parte hartzeko gaitasunak garatzen ikasteko gunea behar dute izan.

#### **Prozesu iraunkorra (ekonomian, gizartean eta ingurugiroan).**

Ekonomiaren, gizartearen eta ingurugiroaren iraunkortasuna bultzatuko dute aurrekontu parte hartzaileek haien urrats guztietan, eta urteroko udal- aurrekontuan txertatutako proposamenetan, behin udalbatzak onartuta dituenean.

## **BIGARREN TITULUA: antolaketa**

### **1. LURRALDEAREN EGITURA.**

#### **1. ARTIKULUA. LURRALDEAREN EREMUA.**

Prozesuan Lekunberrik hartzen duen lurralde- eremu osoa sartzen da.

### **2. ANTOLAKETARAKO EGITURA.**

#### **2. ARTIKULUA. PARTE HARTZAILEAK.**

Herritarrak hiru taldeetan sailkatuko dira, herriarekiko duten ardura aintzat hartuta: **herritarrak, udal zerbitzueta langileak eta politikoak.**

**Parte hartzeko aukera** (eztabaidatu, proposatu, erabaki) **Lekunberrin erroldatuta dagoen edozeinek dauka. Lekunberrin bizi baina erroldatuta ez daudenek**, prozesuan parte hartu dezakete baina ez dute erabakitze eskumenik izango.

**Adinak ezartzen dituen mugak** gainditzen dituztenek **eskaerak eta proposamenak** egiteko aukera izanen dute. Hala ere, **14 urtetik gorakoek soilik** (aurten adin hori izanen dutenak barne) **izanen dute erabakiak hartzeko eskumena.**

Prozesua garatzean beharrezkoak diren uneetan (proposamenen aurkezpena, bozkatzea, eta abar), **parte hartzaileek haien dokumentazioa aurkeztu beharko dute.** Honako dokumentazioa onartuko da: NAN, pasaporte eta gidatzeko baimena. Dokumentuak baliozkoak izateko indarrean behar dute egon.

#### **3. ARTIKULUA. HERRITARREN BATZORDEA.**

Herritarren batzordearen egitekoak honako hauek izango dira: elkar trukaketarako gunea, aurrekontu parte hartzaileen prozesuari buruzko eztabaida, azterketa eta erabakia.

Herritarren batzordeetan proposamenak egiteko eskumena duten baina bozka emateko aukerarik ez duten pertsona guztiek parte hartu dezakete. Batzordeetan hartutako erabakien inguruko bozka eman ahal izateko, **Lekunberrin erroldatuta eta 14 urte baino gehiago** (aurten 14 urte egiten dituztenak barne) **izatea** beharrezkoa da.

Beharrezkoa bada, batzarretan Udaleko talde teknikoaren bertaratzea eta laguntza izanen da.

Prozesuan beharrezkoak diren batzar guztiak burutuko dira.

Herritarren batzarren koordinazioaren ardura Udaletxeak izendatutako zinegotziek eta talde teknikoaren osatzen duten pertsonak izanen dute.

#### 4. ARTIKULUA. MAHAI TEKNIKOA.

Mahai teknikoa honako hauek osatuko dute:

- Lekunberriko Udaletxeko teknikariek: Udal arkitektura taldea (bakarrik beharrezkoa ikusten bada) + udal idazkaritza
- Udalbatzak izendatutako zinegotziek: LT-ko 2 eta EH-B-ko 1.
- Herri Batzarra aukeratutako bizilagunak (ezingo dira izan proiektuetan partehartzaileak)

# HIRUGARREN TITULUA:

## proposamenak eta horien lehentasuna

---

### 1. PROPOSAMENAK.

#### 5. ARTIKULUA. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK.

Proposamenek Lekunberri herria edo/eta Lekunberriko herritarrak aintzat hartuko dituzte. Herritar edo talde bakoitzak proposamen bat aurkezteko aukera izanen du.

Proposamen horiek 2023 urteko aurrekontuan, urte naturalean edo horren luzapenetan, gauzatu beharko dira.

Proposamenak jende aurrean dauden bitartean anonimoak izanen dira.

#### 6. ARTIKULUA. PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

Herritarrek, ezarritako epeetan aurkeztuko dituzte haien proposamenak. Horretarako honako bide hauek baliatu ditzakete: parte hartze guneak eta proposamenak jasotzeko aurreikusiko diren bide eta guneak.

Proposamena aurkezteko oinarriko galdetegi bat bete beharko da; laburra eta erraza, eta ezaugarriak garrantzitsuenak azalduko dituena: proposamenaren titulua, arrazoibidea, helburuak, deskribapena, gutxi gora beherako aurrekontua eta datu osagarriak.

Proposamen horiek aurkezten dituztenek, honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: NANA, pasaporte eta gidatzeko baimena.

Era berean, galdetegian, honako datu hauek zehaztu beharko dira: ordezkatzeko duen dokumentuaren zenbakia, adina eta sexua.

Pertsona horrek 14 urte baino gutxiago baditu (aurten adin hori egiten dutenak kanpo gelditzen dira), proposamena adinez nagusia den beste pertsona batek aurkeztu beharko du.

**Herritar batek ezinezkoa badu proposamena udalean aurkeztea, bera ordezkatzeko duen beste norbaiti baimena emateko aukera dauka.**

Proposamenak aurkezteko galdetegia Lekunberriko udaleko bulegoetan jasotzeko aukera izanen da. Udaletxeak duen web- gunetik ere deskargatzeko aukera egonen da.

Proposamenak aurkezteko, galdetegia behar bezala bete beharko da eta udal-bulegoetan utzi.

Galdetegia betetzeko laguntza behar izanez gero, udaletxeko langileengana jo beharko da. Horiek azalduko dute nola bete behar den ( ikusi 2. eranskina)

## **2. PROPOSAMENEN LEHENTASUNA**

### **7. ARTIKULUA. PROPOSAMEN GUZTIETAN AINTZAT HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK.**

Aurrekontu parte hartzaileetako lan taldeak aztertuko du zeintzuk diren proposamenak horietan txertatzeko bete beharreko irizpideak, eta proposamenek irizpide horiek betetzen dituzten edo ez. Honako irizpideak betetzen dituzten proposamenak sartuko dira:

1. Proposamenak Lekunberri herria ( osotasunean edo zati bat) eta/ edo Lekunberriko biztanleak hartzen ditu aintzat.
2. Proposamenak udalerrria hartzen du eta udal eskumenekoa da.
3. Proposamena 2023 urteko aurrekontuan gauzatzen da.
4. Proposamenak udalerrriak dituen beharrak hartzen ditu kontutan.
5. Proposamena, zehatza eta ekonomikoki ebaluatzeko modukoa da.
6. Proposamena inoiz ez da pertsonekin diskriminatzailea izango genero, arraza, adina...etab. arrazoiengatik.

Irizpide hauetako baten bat betetzen ez duen proposamena aurrekontu parte hartzailetatik aldi baterako kanpo geldituko da. Beti emango delarik aukera eta gida proiektuaren bultzatzaileei eduki edo forma akatsak zuzentzeko eta posible egiteko beraien parte hartzea Partehartzaile Aurrekontuen izpiritua errespetatzen.

Aurkeztutako proposamen horietako batzuk, bakar batean bat egiteko aukera dago; berdinak badira edo elkarren osagarriak badira, eta lan taldeak horrela egin daitekeela erabakitzen badu, beti ere.

Aurrekontu parte hartzaileetan sartuko diren proposamenak, jende aurrean jarriko dira eta zabalduko dira. **Anonimoak izanen dira.**

Horrez gain, proposamenak aurkeztu dituzten pertsonak, nahi izanez gero, **herritarrei zuzeneko aurkezpena egiteko aukera ere izanen dute.**

### **8. ARTIKULUA. PROPOSAMENEN LEHENTASUNA.**

Herritarrek egindako proposamenak aukeratzeko, lehentasun ordena ( nagusitik- txikira) erabiliko da. Horretako, horietako bakoitzak lortutako puntuazioa aintzat hartuko da. Puntuazio bi sistemen bidez emango da:

1. Aurrekontu parte hartzaileen oinarrien eta irizpide teknikoaren puntuazioa.
2. Herritarren zuzeneko bozka.

Proposamen bakoitzak eskuratuko duen gehienezko puntuazioa, aurreko bi sistema horietan zehaztutako portzentajearen arabera izanen da:

1. Aurrekontu parte hartzaileen oinarrien eta irizpide teknikoen puntuazioa proposamenaren puntuazio orokorraren %25 izanen da.
2. Herritarren zuzeneko bozkaren puntuazioa proposamenaren puntuazio orokorraren %75 izanen da.

**Aurkeztutako proposamen kopuruaren arabera erabakiko du mahai- teknikoak aukeraketa zehatzagoa egiteko txanda bat edo bi egin behar diren.**

Herritarren zuzeneko bozkan jasotako emaitzak eta oinarri eta irizpide teknikoak baloratu ondoren, proposamenak lehentasun ordenaren (nagusitik-txikienera) arabera aukeratuko dira. (ikusi 3. eranskina)

# LAUGARREN TITULUA: prozesuaren ebaluazioa eta araudiaren aldaketa.

---

## **1. ARAUDIAREN EBALUAZIOA ETA ALDAKETA.**

### **9. ARTIKULUA. PROZESUAREN EBALUAZIOA.**

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua aztertzeke, ondoko ebaluazioak egingo dira:

- Herritarren ebaluazioa, aurrekontu parte hartzaileetako lan taldeak egindako bilera baten bidez.
- Prozesu osoan zehar araudiari egindako ekarpenak eta proposamenak.

Ebaluazio horien guztien emaitza prozesuaren amaierako memoria- txostenean jasoko da.

### **10. ARTIKULUA. ARAUDIAREN ALDAKETA**

Araudia aldatzeko prozesu osoari buruzko memoria aintzat hartuko da.

Lan taldeak, ebaluazio ezberdinetan proposatutako emaitzak aztertu ondoren, prozesu berriari begira proposatu beharreko aldaketak zehaztuko ditu.

---

# BOSTGARREN TITULUA: prozesu osoan betearazteko mugarri bakoitzaren data.

---

1. ASANBLADA IREKIA: 2023-KO URTARRILAREN 17AN 11H-TAN
2. OINARRIEN ESPOSIZIOA: URTARRILAREN 18A
3. PROPOSAMENEN AURKEZPENA: OTSAILAREN 1A AZKEN EGUNA
4. MAHAI TEKNIKOAREN BILERA: OTSAILAREN 8AN
5. PROPOSAMENEN ZUZENKETEN EPEA: OTSAILAREN 17A AZKEN EGUNA
6. MAHAI TEKNIKOAREN BILERA: OTSAILAK 21
7. BOZKETA: OTSAILAREN 28TIK MARTXOAREN 10ERA ARTE

## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINEN SARRERA.

Lekunberriko aurrekontu parte hartzaileen araudiko eranskinak ezin izanen dira aldatu prozesu osoa amaitu arte. Une horretan, ebaluazio ezberdinetan proposatutako emaitzak aztertu ondoren, prozesu berriari begira proposatu beharreko aldaketak zehaztuko ditu lan taldeak.

### 2. 1GO ERANSKINA.

Udalak, 2023 urteko aurrekontu parte hartzaileen prozesuari egokitutako gastua: 30.000 euro (BEZ-a barne).

### 3. 2. ERANSKINA.

Proposamenak aurkezteko galdetegia.





IZEN- ABIZENAK.

NAN.

EMAIL:

TELEFONOA.

DATA:



## PROIEKTUAREN ZERGATIA

## PROIEKTUAREN AZALPENA

## AURREKONTUA

#### 4. 3. ERANSKINA.

Aurrekontu parte hartzaileetako oinarri eta irizpide teknikoen puntuazioa.

Aurrekontu parte hartzaileetako oinarri eta irizpide teknikoen puntuazioa proposamen bakoitzean aztertuko du lan taldeak.

##### 1. Estrategikoa eta iraunkorra (3 puntu arte).

Proposamenak datozen urteotarako jarraipena eta iraunkortasuna aurkezten ditu.

0-1 urte artekoa : 0 puntu

1-5 urte artekoa: puntu 1

5-10 urte artekoa: 2 puntu

10 urte baino gehiago : 3 puntu

##### 2. Gizartearekiko justua (3 puntu arte).

Proposamenak Lekunberriko biztanleen kopuru nabarmena hartzen du kontutan.

Biztanleen %0-25 artekoa: 0 puntu

Biztanleen %26-50 artekoa: puntu 1

Biztanleen %51-75 artekoa: 2 puntu

Biztanleen %76-100 artekoa: 3 puntu

##### 3. Eskuragarria eta solidarioa (6 puntu arte).

Proposamenak udalerrian behar handiena duten herritarrak edo arloak lantzea du helburu.

3.1. Udalerrian beharrik handiena duten herritarrak: adin taldeak ( haurrak, gazteak, adinekoak), desgaitasuna ( fisikoa, psikikoa edo sensoriala), aukera gutxien duten taldeak ( langabetuak, etorkinak, kultur talde gutxituak), eta abar.

3.2. Garrantzitsua- premiazkoa den balorazio teknikoa:

Esku hartzea beharrezkoa ez denean: 0 puntu

Esku hartzea beharrezkoa denean: puntu 1

Esku hartzea garrantzitsua denean: 2 puntu

Esku hartzea premiazkoa denean: 3 puntu

3.3. Udalerrian beharrik handiena duten eremuak:

Garrantzitsua- premiazkoa den balorazio teknikoa

Esku hartzea beharrezkoa ez denean: 0 puntu

Esku hartzea beharrezkoa denean: puntu 1

Esku hartzea garrantzitsua denean: 2 puntu

Esku hartzea premiazkoa denean: 3 puntu

4. Zuzena eta berdintasunean oinarrituta (puntu 1 arte)

Proposamenak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanetan berdintasunez jokatzeko sustatzen du. Parte hartzea, erantzunkidetasuna, eta emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia orekatua indartzen du. Kontziliario pertsonala ( etxeko lanen banaketan genero bereizketak) aintzat hartzen du. Emakumezkoen egindako ekarpenak adierazten ditu. Baterako hezkuntza sustatzen du. Beste batzuk.

Ez: 0 puntu

Bai: puntu 1.

5. Integratzailea eta barnerakoia (puntu 1 arte)

Proposamenak herritarren parte hartzea eta artikulazioa sustatzen du. Autonomia, parte hartzailea eta arduratsua izanen den biztanle- eredu sortzea eragiten du. Udalerrian dauden talde- sektore ezberdinen arteko komunikaziorako edo koordinaziorako eremuak eta bideak indartzen ditu. Udalerrian parte hartze demokratikoa sustatzen duten guneak eta jarduerak ahalbidetzen ditu.

Ez: 0 puntu

Bai: puntu 1

6. Formazioa eta hezkuntza sustatuko duena (puntu 1 arte).

Proposamenek herritarren ikasketa- prozesuak eta gaitasuna sustatzen dute. Udalerriko garapenerako gaitasunak eskuratzeko ahalmena dauka ( jarrerak, gaitasunak, kontzeptuak).

Ez: 0 puntu

Bai: puntu 1

7. Ingurugiroaren jasagarritasuna. Ingurugiroaren eragina Lekunberrin (4 puntu arte)

Proposamenak, Lekunberriko ingurugiroan ezaugarri ezberdinen eragina gutxitzen du, edo ingurugiroaren jasagarritasunerako irizpideak txertatzen ditu.

Ingurugiroan eragina, jarduerak batek sortzen duena da. Horrek, eragin negatiboa duten ezaugarriak ( kaltegarriak direnak) eta eragin positiboa dutenak ( onura ekarriko dutenak) sortzen ditu.

Ingurugiroan eragin negatiboa: 0 puntu

Ingurugiroan eragin negatibo txikia (edo dagoena txikitzen duena): puntu 1

Ingurugiroan eragin negatiborik ez denean: 2 puntu

Ingurugiroan eragin positiboa: 4 puntu.

8. Mantenerako gastua (4 puntu arte).

Proposamenak ez du haren jarraipena egiteko gasturik edo gastua ahalik eta baxuena da.

Urtean zehar gastua %10 baino handiagoa: 0 puntu

Urtean zehar gastua %10 baino txikiagoa: puntu 1

Urtean zehar gastua %5 baino txikiagoa: 2 puntu

Gasturik ez du: 3 puntu

Gastua aurrezten du: 4 puntu

9. Berezko baliabideak erabiltzea (puntu 1 arte).

Proposamena, udalerrian dauden baliabideak erabiliz gauzatu daiteke ( azpiegiturak, materialak, langiloak eta abar). proposamenaren gastuaren aurreikuspenak udal- gastua aintzat hartuko du.

Ez: 0 puntu

Bai: puntu 1

10. Euskera. Normalizazio linguistikoa (2 puntu arte)

Proposamenak normalizazio linguistikoen prozesuak laguntzen ditu hezkintza prozedurekin edo herriaren egunerekotasunean euskera integratzen.

Ez: 0 puntu

Bai: puntu 2

11. Proposamen berriak (puntu 1 arte)

Proposamen aberria da eta ez da aurreko urteetako aurrekontu parte hartzaileetan aintzat hartu.

Ez: 0 puntu

Bai: puntu 1

5. 4. ERANSKINA.

- a. Irabazle suertatzen den proiektua 30.000€-tara ailegatuko ez balitz eta hortaz soberakin bat geratuko balitz, soberakin hau beste proiektuei eskeniko zitzaien, lortutako puntuazioa kontutan izanik ordena eramateko ordua, n sobratutako kantitate hori beraien interesekoa balitz proiektua aurrera eramateko.
- b. Proiekturen bat 30.000€ baino gehiagokoa balitz, proiektu hori bideragarritasun eta finantziario plan batekin batera aurkeztu beharko da.
- c. Proiektu irabazlea bukatzeko gehiengo epea urte betekoa izango da saria izendatzen den momentutik kontatuta. Epe hori notifikazio edo justifikazio batekin errespetatu ezean, Mahai Teknikoa erabakiko du luzapena eman edo ez, bere eskutan izanik irabazleari egotzitako aurrekontua kentzea lehiaketaren baldintzak ez betetzeagatik.